

Indartu egin du bere lidergoa kontsumitzaileari informazioa ematearen arloan

EROSKI-K "EKILIBRIA" AURKEZTU DU, PROGRAMA AURRENDARI BAT NUTRIZIOAREN DIAGNOSTIKORAKO

- ***Ekilibria* programa berriak hileroko txosten pertsonala eta konfidentziala eskainiko dio kontsumitzaileari, haren erosketak gomendio zientifikoekin konparatuta elikadura osasungarri bat eraman dezan**
- ***Ekilibria* tresna digital aurrendaria da, eta teknologia berriak darabiltza informazioaren tratamenduan, kontsumitzaileen ongizatea hobetzeko**
- **Edozein bezero-bazkidek, EROSKI Klubaren txartelarekin, izena eman dezake *Ekilibria* programan, eta nutrizioaren arloko txosten pertsonala kontsultatu**
- **Gomendio pertsonalak ere ematen ditu *Ekilibria* programak; gainera, errezeta berriak eta promozioak proposatzen ditu, elikadura orekatu bat izaten laguntzeko, eta bezero-bazkideen esku jartzen du nutriziorako kontsulta zerbitzu bat**

Elorrio, 2017ko otsailaren 2a.- [EROSKI](#)k *Ekilibria* programa aurkeztu du gaur; programa aurrendari bat, informazioaren teknologia berriak erabiltzen dituen kontsumitzaileari elikadura osasungarri bat eramaten laguntzeko. EROSKI, kontsumo kooperatiba den aldetik beti nabarmendu izan denez kontsumitzaileari ematen dion prestakuntzan eta informazioan, aurrerago joan da, eta elikadura diagnostiko pertsonala egiteko tresna modernoak jarri ditu kontsumitzailearen zerbitzura. Espainian zerbitzu aurrendaria da, EROSKI Klubaren bazkide den edozeinek eskura duena; gomendio pertsonalekin, errezetekin eta promozioekin osatuta dago, elikadura orekatua eraman nahi dutenentzat eta nutrizio kontsultarako zerbitzu bat ere badu.

"Teknologia berriak bizkor ari dira garatzen. Orain dela 40 urte, kontsumitzailearen informazio euskarri nagusia gure aldizkaria zen, EROSKI CONSUMER, zeina gaur egun oraindik argitaratzen jarraitzen baitugu. Ondoren webgunea etorri zen, eta, gero, sakelakoan aplikazioak. Orain beste jauzi bat eman dugu, kontsumitzaileari informazioa pertsonala eskainita, zertarako eta haren bizi kalitatea hobetzen laguntzeko era orekatuagoan elikatuta", azaldu du EROSKIren Gizarte

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Erantzukizuneko zuzendariak eta EROSKI CONSUMER argitalpenen arduradun gorenak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Ekilibria programara sartzeko, EROSKIren webgunera jo dezakete kontsumitzaileek, www.eroski.es/ekilibria, eta hor EROSKI Klubaren bezero-bazkideek izena eman dezakete nutrizioaren gaineko diagnostiko pertsonal bat jasotzeko. Hileroko txosten bat da, bezero-bazkidearen erosketen analisia aztertuz egiten dena; azterketan horretan, komunitate zientifikoak gomendatzen dituen nutrizio irizpideekin konparatzen da emaitza. Txostenean, erraz ikusteko eta ulertzeko moduan adierazten da ea Bezero Bazkideak erabiltzen dituen elikagai taldeak bat datozen dieta orekatutzat jotzen diren gomendio zientifikoekin.

Diagnostikoa egiteko, etxearen osaera hartzen da kontuan (kide kopurua, helduak eta haurrak) eta etxeko otorduen maiztasuna. Era berean, bezero-bazkideak bere dietaren eboluzioa ikusi ahalko du, eta emaitzak konparatu programan parte hartzen ari diren kontsumitzaileen batezbestekoarekin.

"Diagnostikoaren emaitza zein den, aholku, errezeta eta promozio jakin batzuk jasoko ditu batek, bere elikadura orekatzeko orduan lagungarri izan dakizkion", azaldu du Martinez Berriochoak.

Nutrizio aholkularitza, errezeta bilduma eta gaur egungo berriak

Edozein kontsumitzailek kontsulta dezake *Ekilibria* programak dakarren informazioa; bertan datoz, errezeta osasungarrien sorta zabala, bere manera eta trikimailu berriekin dieta orekatu bat osatzen duten elikagairik inportanteenak prestatzeko. Era berean, edozein kontsumitzailek irakur ditzake, programak berak hautatuta, zenbait berri elikaduraz, nutrizioaz eta joera berriez. Horretaz gainera, erabiltzaileek aukera izango dute nutrizio aholkularitzarekin izaten diren elkarriketetan parte hartzeko; bertan, nutrizionista talde bat egongo da aholkuak eta erantzunak emateko. Edonola ere, parte hartzeko eta aholku pertsonalak jasotzeko, "*Ekilibria* komunitatekoa" izan behar da.

"Ekilibriak aukera ematen digu geure burua hobeki ezagutzeko eta gure bizimoduaren kalitatea zertxobait hobetzen laguntzeko", esan du kooperatibaren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak. Eta hauxe gaineratu du: "Hobekuntzarako lehenengo pausoa eman dugu; hala ere, kontuan izan behar da programak orientabide bat ematen duela baina inondik ere ez dela nutrizionisten eta dietisten, hau da, egiazko adituen eta espezialisten zeregina ordezkatzeko, are gutxiago

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

intolerantziaren bat edo eritasunen bat diagnostikatuta duten pertsonen kasuan; horrelakoek mediku profesionalen aginduak bete behar dituzte, izanez ere haien lana ezinbestekoa baita. Hain zuzen ere, programa hau garatzeko, haien aholkularitza izan dugu".

EROSKIren *Ekilibria* programa berria garatzeko, laguntza eman dute Dietisten eta Nutrizionisten Espainiako Elkarteak eta Dietetikako eta Elikaduraren Zientzietako Espainiako Elkarteak, "5 al día" elkarteak —zeinak helburu duen fruituen eta barazki freskoen kontsumoa sustatzea— eta Familiako Hiperkolesterolemiaren Fundazioak.

Dietisten eta Nutrizionisten Espainiako Elkarteko presidentek, Bittor Rodriguezek, hauxe esan du: *"Komunitate zientifikoko kide garen aldetik, hasieratik lagundu nahi izan dugu tresna informatiko hau garatzen. Tresna honek, dieta orekatutzat jotzen duguna zorrotz zainduta, diagnostiko pertsonal bat egiteko balio du. Gure ustez, hori da bidea elikadura osasungarri baterako jarraibideak hedatzeko eta kontsumitzaileari bere ohiturak zuzentzen laguntzeko bizi kalitate hobea izan dezan".*

Dietetikako eta Elikaduraren Zientzietako Espainiako Elkarteko Jesus Roman Martinez Alvarezek, berriz, hauxe esan du: *"Zorionak eman nahi dizkiogu EROSKIri ekimen honegatik, bide berri bat ireki duelako osasunaren profesionalok elikadura ohituren ganean pazienteei ematen dizkiegun diagnostikoen eta gomendioen arloan. Nabarmentzekoa da EROSKI nola partekatzen duen informazio hori bezeroekin, bere dieta hobetu nahi dutenek era kontzienteagoan hobetzeko modua izan dezaten. Tresna hau erabiltzea gomendatuko dugu".*

Ekilibria programak, ondorio pertsonalak ateratzeko, nutrizioaren arloko piramide bat erabiltzen du; piramide hori zientzialarien kontsentsuz egina dago, eta haren oinarrian, maizenik jan beharreko elikagaiak datoz, hala nola fruitu eta barazki freskoak. Alde horretatik, Nuria Martinezek, "5 al día" elkarteko zuzendariak, hauxe azaldu du: *"Xedea da herritarra kontzientziaztea fruitu eta barazki freskoak jan behar direla egunean bost aldiz behintzat. EROSKIren Ekilibriak hori betetzen ari ote zaren esaten dizu, eta hobetzeko helburu txikiak jartzera animatzen zaitu. Mugarria izango da elikadura osasungarriagoaren aldeko ekintzetan".*

"Ekilibria oso garrantzitsua izan daiteke janariarekin kontu handia eman behar den kasuetan, zeren eta diagnostiko bat ematen baitu egunean-egunean nolako elikadura eramaten ari zaren eta gomendio zehatzak egiten ohiturak hobetzeko",

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

esan du Familiako Hiperkolesterolemiaren Fundazioko presidentek, Pedro Mata doktoreak.

Ekilibria aurkezteko festatxoa

Arratsalde honetarako deialdi bat egin du EROSKI Bilboko Yimby aretora *Ekilibria* programa bertatik bertara ezagutarazteko. EROSKI Klubeko 200 Bezero Bazkide inguru deitu ditu, eta hor izango da jende ezaguna ere, hala nola Eli Pinedo kirolari eta txapeldun olinpikoa, Julian Iantzi telebistako aurkezlea eta Eneko Atxa hiru Michelin izar dituen sukaldari ospetsua. Horiekin batera, bertan izango dira zenbait ordezkari Dietisten eta Nutrizionisten Espainiako Elkarteak eta "5 al día" elkarteak.

"Izena eman dut Ekilibrian, eta nire nutrizioaren gaineko lehen txostenean zenbait ezusteko hartu ditut, hala nola ez nintzela ohartzen ze fruitu, barazki eta zereal pila jaten dudan egunero. Hori ongi dago, eta poztu naiz. Tresna zoragarria iruditzen zait kirola eta jarduera fisikoa maite dugun guztiontzat, zeren eta horrela elikadura orekatua zaintzen laguntzen baitigu", mintzatu da Eli Pinedo, 2016 arte saskibaloian nazioarteko jokalaria izana eta Londresko 2012ko Olinpiar Jokoetako txapelduna. Sare sozialetako aktibista da, eta gaur egun London 717 *eco-friendly* bizi estiloko eta modako markako zuzendaria da.

"Tresna iraultzailea iruditzen zait. Sinestezina da hor ikustea, dena batera, EROSKI egindako erosketak era ordenatuan elikagai taldeen arabera, eta hortik ondorioa ateratzea hau gutxiago jan behar duzula edo bestea gehiago. Zoragarria", esan du Julian Iantzi Kaliforniako aurkezleak, nork eta Espainiako telebistetan *reality* gehien aurkeztu eta bere bizimoduarekin pozik dagoela aitortzearekin bat erronkak, kirola eta abentura maite dituela aitortzen duenak. *"Nire idurian, fruitu eta barazki gehiago jan behar genituzke, eta egunean bost otordutan banatu"*.

EROSKI da liderra kontsumitzaileari informazioa emateko orduan

EROSKI, kontsumo kooperatiba gisa, lan handia egiten du kontsumitzailea prestatzen eta informatzen. *"Konbentziturik gaude kontsumitzailea informatuta izatea funtsezkoa dela kontsumo arduratsuaren bitartez bere bizi kalitatea hobetu dezan"*, azaldu du Martinez Berriochoak. *"Inportantea da baita ere kontsumitzailea gai delako bere erabakiekin ekoizpen eta banaketa sektorearen jardunbidea baldintzatzeko. Azken batean, gure jateko modua erabakigarria da elikadura kate osoan, eta eragin argia du osasun publikoaren etorkizuneko erronketan"*.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

EROSKI CONSUMER argitalpena hedabide liderra da kontsumoari lotutako informazioan. Hilabetekaria doakoa da, eta 180.000 ale banatzen dira; webgunean, berriz, www.consumer.es, sei milioi bisita izaten dira, eta sakelakoetara milioi bat deskarga baino gehiago haren aplikazioetatik; ezinbesteko erreferentzia da informazio egiazkoa eta egiaztatua izan nahi duenarentzat elikadura orekatuaren eta bizimodu osasuntsuaren gainean eta orobat etxeko animalien eta haur txikien gainean. Horretaz gainera, euskaraz ez ezik beste hiru hizkuntzatan irakur daiteke EROSKI CONSUMER aldizkaria, gaztelaniaz, katalanez eta galizieraz.

Bestalde, EROSKI aurrendaria izan da bere markako elikagaiek nolako nutrizio kalitatea duten era gardenean azaltzeko orduan. Semaforo nutrizionalaren etiketaren bitartez, kontsumitzaileek informazio zehatza dute ontziaren aurrealdean, eta produktu bakoitzaren nutrizio kalitatea balora dezakete, azukre, gantz, gantz saturatu eta azukre kopuruari begiratuta hiru parametrotatik: txikia (berdea), tartekoa (horia), altua (laranja).

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)